

Botere faktiko guztiak ados daude, Euskaltel saldu egin behar da. Euskaltelek bere bezeroen Wifi routerrak erabiliz “_EUSKALTELWIFI_KALEAN” izeneko sarea martxan jarri du. Zerbitzu berri honek kalean zaudela ere beste batzuen Wifi puntua erabiltzeko aukera eman nahi omen du. Benetan, Euskaltelek bere bezeroen azpiegitura oinarrituz [120.000 konexio puntu dituen sare bat](#) sortu nahi du.

Erabiltzaile asko konturatu direnean, beren [kezka adierazi diote enpresari](#), baina ez dirudi erantzun zehatzik eman dutenik oraindik, foroko ehunka mezuek erakusten duten moduan. Beste batzuk, kezka baino [haserrea erakutsi dute](#), zenbait konexioetan arazoak sortu dituen eta erabat desegokia iruditzen zaien erabaki honen aurrean. Euskaltelek bezeroen routerrak urrunetik aldatu ditu, hau posible egiteko. Ez dirudi baimen espliziturik eskatu dutenik, nahiz eta Abenduko kontratu baldintzetan agertzen zela adierazi.

Aspaldi utzi zion Euskaltelek, [euskal azpiegitura propio bat izateko aukera izateari](#). Are gutxiago bere akzionariadunen artean Putre funtsak sartu zirenean. Hala ere, Kutxabank da oraindik %49,9 akzioen jabe, beste %2a Iberdrolarena da eta aipatutako futnsek gainerakoa dute. Kutxabanken kontrol publiko ezak sortutako izaera antisozialak, azken aldian burtsara atera diren zenbait enpresen arrakastak, baina batez ere aipatutako fondoaren presioaren ondorioz, azkenean seguruenik [burtsara aterako da](#). Zurrumurruek baino gehiago direla dirudi orain, burtsara ateratzeko, Euskaltelek [Rothschild-en](#) bankua aukeratu omen du horretarako.

Erabiltzaileen aurkako estrategia bortitz honen aurrean dagoen bakarra horixe da. Beste konpainietatik Euskaltelera igarotzeko eskaintza basatiak, bezeroek dituzten azpiegiturak baliatuz sarea erakitzeko saiakerak, taberna eta ostalaritza zerbitzuetan wifi sareen bidez bezeroen harrapaketa... Euskaltelen zenbakiak puztu nahi dituzte, azken *sprint* batean.

Irudia: UKBERRI.NET Uribe Kosta eta Erandioko agerkari digitala - [img_0910.jpg](#) - [cc-by-sa](#)